



Katalana, Europako hizkuntza

Jatorria, lurraldea eta biztanleria

Katalana, neolatindarren taldekoa, VIII. eta X. mendeen artean eratu zen “Marca Hispanica” izeneko konderriek osatzen zuten Inperio karolingiarren lurretan. XII. eta XIII. mendeetan zehar hegoalde eta ekialderantz hedatu zen koroa katalan-aragoiarraren konkisten ondorioz, eta hizkuntzaren muga finkatuta geratu zen Jaume I.aren erregealdiaren amaieran.

Katalana 68.000 kilometro karratutan zehar dago hedatuta, zeintzuetan 11.380.000 biztanle bizi diren. Gaur egun zazpi lurraldetan banatuta dago eta lau estatutan bereizita: Andorra, L’Alguer (Italia), Katalunia, Balear Uharteak, Valentziar Erkidegoa eta Franja de Ponent (Espainia) eta Katalunia Iparraldea (Frantzia).

Katalanaren ezagutza

Katalana berezko hizkuntza den lurraldeetan oso desberdin dago banatuta, toki horietako errealitate historikoak eta politikoak anitzak baitira. Hizkuntzaren ezagutza mailari dagozkion datuen arabera, mintzatzeko gai diren pertsonen kopurua 7.300.000 da gutxi gora behera eta ulertzen dutenena 9.800.000.

Katalana, salbuespena Europan

Katalanak hizkuntza gutxiagotuen zenbait ezaugarri baditu ere, haien aldean desberdina da zenbait arrazoiengatik. Izan ere, biztanle kopuru ertaineko hizkuntza europarren artean koka daiteke. Salbuespena da:

- Bere egoera juridikoagatik: Ofiziala da Andorran, eta, gaztelaniarekin batera, Espainiako hiru autonomia erkidegotan.
- Bere demografiagatik. Europar Batasuneko zazpigarren hizkuntza dugu. Hitz egiten duten pertsonen kopurua finlandieraz edo danieraz hitz egiten dutenena baino handiagoa da, eta berdindu egiten da Europan suedieraz, grekoz edo portugesez mintzatzen direnekin.
- Bere egoera soziolinguistikoagatik. Beti hitz egin da, eta normalki transmititu da gizaldiz gizaldi.
- Bere tresneria linguistikoagatik Erabat kudeatu, arautu eta estandarizatutako hizkuntza dugu, adostasun akademiko osoarekin. Bere hornidura linguistikoak eta gramatika, lexikografia, dialektologia, terminologia, hizkuntza – historiari buruzko azterketak eta abar, hizkuntza latindar nagusienekin erka daiteke.

Bere kultur eta literatur tradizioagatik. Katalanak baditu idatzitako testuak, XII. mendetik gaur arte, etenik gabe. 1200 baino literatur idazle gehiago daude bizirik gaur egun.

Katalana eta 11 hizkuntza ofizialak

Hamaika hizkuntza ofizialen artean, zazpigarrena da katalana biztanle kopuruari dagokionez. Katalana ofiziala den Europar Batasuneko lurraldeetan (Katalunia,

Valentziar Komunitatea eta Balear Uharteak) biztanle gehiago bizi dira grekoa, portugesa, suediera, daniera eta finlandiera ofizialak diren lurraldeetan baino.
(mapa 19. orr.)

Katalana eta 12 hautagaien hizkuntza ofizialak

Datozen urteetan Europar Batasunean sartuko diren hamabi estatuekin konparatuz, katalana hirugarren hizkuntza da, biztanleen kopuruari dagokionez. Poloniera (38,7M) eta errumaniera (22,5M) baino ez dira hiztun gehiagoko hizkuntzak..
(mapa 21. orr.)

Katalana eta hizkuntza “gutxitu” direlakoak

Hamabost kideko Europako lurraldean, Euromosaic txostenaren arabera, badaude hogeita hamasei hizkuntza, erregionalak edo gutxituak direnak, 20.000.000 hiztunek baino gehiago hitz egiten dituztenak.

36 hizkuntza horietatik 6k baino ez dute milioi bat hiztunetik gora.

Katalana da hizkuntzarik hedatuena hiztunen kopuruari dagokionez, eta 7 milioi hiztunetik gora dituen bakarra da.

Normalki, hizkuntza gutxituen multzo honetan sartzen da katalana, nahiz eta bere errealitatea oso urrun egon beste guztietatik, demografia, estatutu juridikoa, egoera soziolinguistikoa eta hizkuntza arauen bateratzea direla eta.

(mapa)

125.000 hiztunetik gora dituzten hizkuntza europarrak.